



**AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

**AURRETIKO KONTSULTA UDAL TASAK ORDAINTEKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI  
ESPEZIFIKOEI BURUZKOA**

**1.-ARAUAREN AURREKARIAK:**

Azkoitiko Udalak urteak daramatza ura eta zaborraren tasen ordenantza fiskaletan hobariak ezarriz familia unitateko kideen eta errentaren arabera.

Hobaria onartzeko bi atal hartzen dira kontuan:

1.-Ondarea: Familia unitatea osatzen duten pertsonen ondare guztiaren kopuruak ordenantza fiskalean zehazturiko mugak ez ditu gainditu behar

2.-Errenta: familia unitateko kideen kopurua eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren arabera, portzentaje ezberdinak ezartzen dira hobarian

2016. ekitaldian 52 familiei hobari hau onartu zaie bai ura bai zaborraren tasetan.

Hobaria hauek zerga legeria arautegira egokitze aldera, hobari hauek ezabatu eta diruz lagunduko zaie 2018. ekitalditik aurrera.

**2.-KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK**

8/1989 Legearen 18. artikulua, tasei eta prezio publikoei buruzkoak, agintzen du –ukatu gabe tasak finkatzean aintzat hartu behar dela, zergaren ezaugarriek hartarako egokiera ematen dutenean, ordaindu behar duten pertsonen gaitasun ekonomikoa–, ez dela onartuko, tasen kontuan, zerga-onura edo abantailarik batere, salbu eta Estatuaren eta bestelako lurralde-erakunde publikoen eta instituzionalen faboretan denean edo nazioarteko hitzarmen eta akordioetan ezarritakoaren ondorio denean.

Aurreko guztitik ondorioztatzen da, zergen funtsezko elementuen gainean agintzen duen lege-erreserbaren printzipioaren arabera, lege batek hala adierazten duenean baino ezingo dutela Udalek hobariak edo ordainarazpenak ezarri.

2017. ekitaldian bai ur hornikuntza, saneamendu eta azpiegituren dirubide sarien tasan, baita ere hondakin solidoak eta geldoak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko zerbitzuen tasan hobariak onartu dira familia unitateko kideen eta errentaren arabera, baina hobari hauek ez dira lege batean oinarritzen eta beraz, lege erreserbaren printzipioaren arabera, ezabatu behar dira.

Hala ere Udalak asmoa du diruz laguntzeko zailtasun egoera berezi hau jasaten ari diren familiak eta honegatik hobariak diru-laguntzengatik ordezkatzeko dira, beti ere egoera berbera babestuz.

### **3.- ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKIERA**

38/2003 legeak diru-laguntzak kudeatzeko eta emateko PRINTZIBOAK zehazten ditu:

- a) Publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminazio eza.
- b) Diru-laguntza ematen duen administrazioak ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna.
- c) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

Legearen 8.1 artikulua dio Diru-laguntzak eman aurretik, haiek emateko oinarri arautzaileak onetsi beharko direla 38/2003 legean ezarritakoaren arabera

8.3.ak dio Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko direla diru-laguntza mota edo diru-laguntzen programa bakoitzaren oinarri arautzaileak.

Gainera, honako hauek egiaztatu beharko dira diru-laguntza bat eman aurretik:

- a) Organo emaileak horretarako eskumena duela.
- b) Diru-laguntza ematek datozen ekonomia-eragileei erantzuteko kreditu egokia eta nahikoa dagoela.
- c) Emateko egintzaren aurretik fiskalizazioa gauzatu dela.
- d) Emate-prozedura aplikatzekoak diren arauekin bat izapidetu dela.
- e) Gastua eskumena duen organoak onetsi duela.

Hau horrela izanik Udala tasa ordaintzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzeko beharra du Azkoitiko Udalak eta egokia da bide hau orain arte izan diren hobariak ordezkatzeko.

### **4.- ARAUDIAREN XEDEA**

Oinarri-arau hauen xedea da, diru baliabide urriak dituzten bizilagunei tasen ordaintzeko Azkoitiko Udalak eskainiko dizkien laguntzak arautzea.

Laguntzak, hala badagokio, hurrengo tasen ordaintzeko emango dira:

- Ohiko etxebizitzako ur hornikuntza, saneamendu eta azpiegituren dirubide sarien tasan.
- Ohiko etxebizitzako hondakin solidoak eta geldoak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko zerbitzuen tasan.

Laguntzak honakoak izango dira:

HILEROKO SOLDATA MAILA, PROFESIOARTEKO GUTXIENENKO SOLDATAREKIN KONPARATUZ

	SMI o <	SMI + %10	SMI + %20	SMI + %30	SMI + %40	SMI+ %50	SMI + %60	SMI+% 75
<b>1 - 2</b>	% 90	% 75	% 50	% 25	%25	-	-	
<b>3</b>	% 90	% 90	% 75	% 50	% 25	-	-	
<b>4</b>	% 95	% 90	% 90	% 75	% 50	% 25	-%25	%25
<b>5</b>	% 95	% 90	% 90	% 90	% 75	% 50	% 25	%25
<b>6</b>	% 95	% 90	% 90	% 90	% 90	% 75	% 50	%50
<b>7</b>	%95	%90	%90	%90	%90	%90	%75	%75

Gaitasun ekonomikoa balioztatzeko, aldagai hauek hartuko dira kontuan:

a) ERRENTA

Familia-unitateak guztira dituen sarrerak hartuko ditugu errentatzat:

Lan-etekinak, baita pentsioak eta gizarte-aurreikuspenetako prestazioak ere, haien erregimena edozein delarik ere.

Higigarrien eta higiezinen kapitalaren etekinak.

Enpresa- edo lanbide-jardueren etekinak.

(Balio horiek kalkulatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarako ezarritako arauak jarraituko dira).

b) ONDAREA

Higigarrien eta higiezinen guztizko kapitala hartuko dugu ondareztat.

Bizikidetza unitatea osatzen duten pertsonen ondare guztiaren kopuruak ondorengo mugak gaindituko balitu ez litzaioke hobaririk ezarriko tasari

Goi muga hauek Dirusarrerak Bermatzeko Errentaren arabera dira.

DBE ren GEHIENEZKO URTEKO KOPURUA 2017rako	
B.U.aren pertsona kopurua	OROKORRA €/ Urteko gehienez)*4
1	32.804,64
2	42.124,32

3	46.597,92
---	-----------

Kopuru hauek 2017rako Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailaren ebazpenak DEBaren 2018ko kopuruak onartzen dituenegun eguneratuko dira.

c) FAMILIA- EDO BIZIKIDETZA-UNITATEKO PERTSONEN KOPURUA:

Familia-unitatea: senar-emazteak eta haien mende dauden haurrek edo ezinduek osatzen dute, bai eta judizialki guraso-ahal luzatua edo birgaitua duten adin nagusiko ezgaituek.

Bizikidetza-unitatea: ohiko bizilekuan batera bizi diren pertsona guztiek osatzen dute.

**5.-Egon daitezkeen irtenbide arautzaileak eta ez arautzaileak:**

- Aukera 1: Egun indarrean dauden ordenantza fiskaletako hobariekin jarraitzea

Hau ez litzateke bat etorriko zerga legeria arautegira

Arrazoi hau dela medio, beharrezkoa jotzen da diruz laguntzeko oinarri arautzaileak onartzea

- Aukera 2: Udal tasak ordaintzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzea

Aurreko ataletan esandako guztia aintzat hartuta, ezinbestekoa da oinarri arautzaileak izapidatzea

